

BAZTAN-BIDASOAKO HIZKEREN AZTERKETA DIALEKTOLOGIKOA

Tesiaren egilea: Eduardo Zelaieta Anta

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea

Saila: Hizkuntzalaritza eta euskal ikasketak

Tesi-zuzendaria: Iñaki Kamino Lertxundi

Tesiaren laburpena:

Auza (1305 m) mendiaren mazelan, Xorroxin izeneko alderdian sortzen da Baztan ibaia, Erratzun, Izpegi inguruan. Izen horrekin ezagutzen da Bertizaranara iritsi bitartean, Oieregin berean Bidasoa izena hartzen baitu; bai eta izen horrekin jarraitu Txingudiko Badian hiltzen den arte ere. Guztira 69 kilometroko bidea du; hauetako 59 Nafarroan eta 10 Gipuzkoaren eta Lapurdiren artean.

Hain zuzen ere, ibai honek Nafarroan ureztatzen dituen bazterretan barrena murgildu gara, bertako hizkerek nondik norako mugak dituzten erakusteko asmoz. Dialektologian ezaguna denez, anitz dira eremu bateko mintzoan eragiten duten faktoreak: demografia, orografia-hidrografia-geografia, harreman sozio-ekonomikoak eta egoera soziolinguistikoa, bertzeak bertze. Erran nahi baita, solasa aztertzeo, solas hori egiten duen jendea ere aztertu beharko dela, bai eta jende multzo hori biltzen duen eremua ere. Azken batean, mintzoaz haratago, mintzo hori duen jendeaz ari gara.

Tesiaren ildo nagusiak bat etorri nahi izan du azken garaiko Euskal Dialektologiaren ikerkuntza-bideekin. Honela, ikerkuntza-bide hauen arabera, hizkuntzaren dinamika espaziala aintzat hartzen da; errealizazioen banaketaren eta hedaduraren azterketak, alegia. Hizkuntza-espazioaren egitura aztertzeo, hizkuntza-aldaerek geografian barrena duten hedadura ulertzeko, biderik egokiena dialektologia kontrastiboa da. Hortaz, hizkuntza-geografia izan da gure metodologiaren ardatza: hizkuntzaren tasunei eman diegu lehentasuna eta honelako ezaugarriak aztertzen —(geo)linguistikoki interpretatzen— aritu gara, isoglosa nagusiak non kokatzen diren ikusteko. Geolinguistikari esker, azter-eremuaren eta auzoaren ikuspegi orokorraren berri izan dugu: ezaugarrien geografia-hedadura ikusirik, lerro nagusiak nora begira dauden jabetzeko moduan egon gara.

Datuak lortzeko metodologiari dagokionez, aipatu behar da Baztan-Bidasoan 89 berriemaile izan ditugula eta bertze 21 laguntzaile inguruan. Guztira, beraz, 120 laguneko hizkuntza-datuak erdietsi ditugu grabazioen nahiz galdetegi bidez. Zuzeneko informazio honetaz landara, Euskaltzaindiaren Euskal Hizkeren Herriko Atlasera, Nafarroako Gobernuaren Fonotekara eta Baztan-Bidasoako ahozko bildumetara jo dugu. Halaber, Euskal Dialektologiak azken urteotan emandako bibliografia oparoa irakurri dugu.

Ondorio nagusietan aipatu behar da bereizi direla, alde batetik, Baztan aldean aditzen den solasa, eta bertze aldetik, berriz, Bidasoa alderdikoa (Bertizarana, Malerreka, Sunbilla eta Bortzerriak). Hizkeren sailkapenari dagokionez, bi multzo bereizten ditugu, hortaz, nahiz eta bi hizkera hauek egungo euskara nafarraren barrenean dauden. Baztan-Bidasoa: bi izen, bi izan, euskara nafarraren baitan.

Baztan eta Bidasoaldea linguistikoki bereizten diren gunea Oronoz-Mugairi da (muga-hiri), bertatik ekialdera Baztango hizkera baitugu eta bertatik mendebalera, berriz, Bidasoaldea.

Bidasoaldeko euskaraz den bezainbatean, Bortzerriak eta Malerreka ez datoz beti bat. Zenbaitetan, Bortzerriek ondoko Lapurdirekin nahiz Gipuzkoarekin bat egiten dute, eta Malerrekak, berriz, ondoko hizkera nafarrekin bat egiten du usuago. Halaber, Baztanen, Baztangoiza Ipar Euskal Herritik nahiz Urdazubi-Zugarramurditik hurbilago dago, eta Baztango Basaburua, ordea, Oronoztik nahiz Ultzamatik hurbilago.